

BITARTU-REN OROITIDAZKIA 2009

“BITARTU”-Kooperatibetan gatazkak konpontzeko Euskal Zerbitzuaren helburua, gatazkak konpontzea ez ezik, prebenitzea ere bada. Bere jarduera “Euskal Kooperatibetan Gatazkak Konpontzeko prozedurei buruzko Araudiak” (EHAA 2004-09-21) arautzen du, eta hor, besteak beste, ondorengo bideak ezartzen dira gatazkak konpontzeko:

- Arbitrajea
- Adiskidetzea
- Bitartekotza
- Esku-hartzea

Hona hemen laburtuta BITARTUk 2009ko ekitaldian izan duen jarduera:

Arbitrajeak

- ARB. 1/2009: Bazkide kopuru zabal baten informazio-eskubideaz.
- ARB. 2/2009: Bazkide baten informazio-eskubideaz (Akta-kopia...).
- ARB. 3/2009: Bazkide batek ekonomia- eta finantza-gaiei buruz Kooperatibari egindako informazio-eskabideaz.
- ARB. 4/2009: Bazkide baten aurka Kontseilu Errektoreak zigor-espeditentea hasteko erabakiari “aurka egiteaz”.
- ARB. 5/2009: Bazkide baten eskubide sozio-ekonomikoen aurka Kooperatibak egindako urraketaz.
- ARB. 6/2009: Arbitrajera makurtzeko klausularik ez duen Kooperatiba batean kalte-ordainak emateaz, baina oraindik inork ez daki azkenean BITARTUren arbitrajea onartuko duen edo ez.
- ARB. 7/2009: Borondatezko baja justifikatu gabetzat jotzeari eta itzuli beharreko ekarpenetan egin nahi diren kenketei “aurka egiteaz”.
- ARB. 8/2009: Bazkide baten aurka zigor-espeditentea hasteko erabakiari “aurka egiteaz”.
- ARB. 9/2009: Hainbat bazkideren informazio-eskubideaz.
- ARB. 10/2009: BITARTUk onartu gabeko (artxibatutako) arbitraje-eskabideaz, xedapen libreko gaia ez zela uste baitzuen.
- ARB.-11/2009: Merkaturatzeko produktu-likidazioaz.
- ARB. 12/2009: Borondatezko bajarengatik aplikaturiko kenketaz.
- ARB. 13/2009: Bazkidearen aurka zigor ekonomikoarekin bukatutako diziplina-zigorraz.
- ARB. 14/2009: Kooperatiba-barneko birkokatze-prozesuan lan-egoerak aitortzeaz.
- ARB. 15/2009: Kanporatua izateagatik eman beharreko kalte-ordainen erreklamazioaz.
- ARB. 16/2009: Kopuru baten erreklamazioaz.

Gainera, 2006, 2007 eta 2008 ekitaldietako espeditenteei dagozkien laudoekin liburua editatu eta argitaratu da, baina horren banaketa 2010eko lehenengo hiruhilekora atzeratu da.

Adiskidetzea

- CON1/2009: Bazkide batek merkataritza-lokala erosteko konpromisoa betetzea.

Bitartekotzak

Bitartekotza Eskuliburua idatzi eta argitaratu da, eta horren banaketa 2006, 2007 eta 2008 ekitaldietako laudoekin batera egingo da. Testuaren egileak BITARTUK izendaturiko bitartekariak izan dira.

Esku-hartzeak

- INTER 1/2009: Obra-bukaerari dagozkion ordainketa-baldintzak, baita egiteke dauden konponketak gauzatzearen formalizazioa Etxebizitza Kooperatibaren eta Enpresa Eraikitzailearen artean.
- INTER 2/2009: Gatazka birbideratzea Kooperatiba-barneko konpontze-prozeduretara.

Ikastaroak eta Jardunaldiak

Ondorengo jarduerak egin dira:

- Abenduaren 3an Kontseiluaren egoitza sozialean Jardunaldi Teknikoa egin zen honetaz: “Arbitrajea: Prozedura laburtua” eta hor BITARTUko teknikari eta arbitroez gain, Mitxel Unzuetak, Bilboko Merkataritza Ganberaren Arbitraje Epaimahaiko presidenteak, parte hartu zuen; bertaratuen ekarpenek oso balorazio ona izan zuten eta interes handiko ondorioak atera ziren BITARTUren aldetik aplikazio praktikoa egiteko. Jardunaldiaren aurkezpena Felipe Yarritu Kontseiluko presidenteak egin zuen, eta bukaera Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordeak, José Manuel Fínez-ek, eman zion.

Beste jarduera batzuk

- Kooperatiba guztietara informazio-zirkular bat bidali da, arbitraje kooperatibora makurtzeko klausula beren Estatutu Sozialetan sartzeko aukerari buru